

ONDAREA, EMAKUMEEN EMARIA

ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK 2018

Ondarearen Europako Jardunaldiek, urtero, erronka dakarte: interpretatu eta datozen belaunaldiei transmititu beharreko ondareari, emariari eta legatuari buruzko ikuspegi eta ikusmolde berriak aurkitzea. Eta 2018an, zuzeneko galdera dugu erronka horren aurrean: gure ondarea genero-ikuspegitik interpreta daiteke? Kultur eragileei egiten diegu galdera hori, baina gizarte osoari ere bai. Ba al dakigu ikusten emakumeek Bizkaiko kultur ondarea osatzen duten ondasunen –higiezinak eta higigarriak, materialak eta ez-materialak- eraketan, transmisioan, ezagutzan eta babesean duten ekarpena? Eta are garrantzitsuagoa dena, kontziente al gara garai guztietako emakumeek, beharbada ezagutzen ez ditugun izen-abizenak dituztenek, Bizkaiko lurraldean beren aztarna utzi izanaz eta Bizkaia egun duen izaera eman izanaz?

Ondarea, emakumeen emaria leloak kultur ondarea ulertzeko bi modu dakartza: alde batetik, jabetza gisa; eta bestetik, zaindu eta etorkizuneko belaunaldiei utzi behar diegun dohain gisa. Ikuspegi horri esker, gizarteak aintzatetsi beharreko esanahiez jabetuko gara egungo ikusmoldea oinarri hartuta, iraganean esanahi horiek balioesteko modutik harago. Eta esanahiotan guztiok hartu behar dugu parte, emakumeok eta gizonok. Hortaz, emakumeek gure historiako garai guztietan bete izan duten eginkizuna testuinguruan kokatu beharra dago, zeren eta ondarea ez baita ezer testuingururik gabe, baina testuinguruak ere ez du esanahi handirik subjektu barik, pertsona barik. Tipoak eta estereotipoak gainditzeko unea da, irakurketarik aberatsenak ematea ahalbidetuko diguten galderak egiteko, betiere gure historiako alderdirik txarrenak ahaztu barik. Izan ere, horretarako balio du ondareak, gatazkak gainditzeko.

Beraz, zelan garatu dezakegu hain gai konplexua Jardunaldietan? Ikuspegi zabalagoa ematen duten hainbat ikuspegi proposatuko ditugu, arlo askotako ikuspegi integratzailea, emakumeek Bizkaiko kulturaren sorkuntzan duten eginkizuna erakusteko.

Emakumeen irudikapenak eta ereduak

Emakumeek kultur ondarean duten presentzia aztertzeke lehen modua beharbada agerikoena da: emakumeak kulturaren eta gizartearen arloko sorkuntzaren xedea diren aldetik, zelan ikusiak izan diren, eta beraz, zelan irudikatu izan diren, garai historikoaren arabera denboran aldatuz joan diren itxurekin. Lehenik eta behin, **ahalmen sinboliko eta erlijioso** handiko emakumeen erreferenteak ditugu, baina **alegorikoak** eta **mitologikoak** ere bai. Horiek guztiek dituzte transmititu beharreko ereduak. Aldareetatik, birjinak eta santuak etsenplu positiboak bihurtzen dira; beste batzuk, aldiz, saihestu beharreko estereotipoak dira, Eva adibidez. Irudi horien aurrean, analisi formalaz eta ikonografikoaz baino esanahiez galdetu behar diegu geure buruari: benetakoak al dira edo eredu idealizatuak al dira gehiago? Eta hala ez

badira, nork proposatzen du eredia? Eta nori? Eta, batez ere, zertarako? Mitologian ere emakumeek ikuspegi kontraesankorrak izan dituzte: askotariko itxurak, jakituria iluna eta arautik kanpoko jokabidea dira nagusi Mariren, sorginen edo lamien aldetik. Izan ere, apenas dago horiei buruzko irudikapen plastikorik, baina imaginario kolektiboan txertatuta daude legenden, mitoen eta erritualen bidez, pertsonaia horiei deitzeko eta haien boteretik babesteko. Bestelako **irudikapenak** ere izan dituzte emakumeek, ordea: **nominalak**, sinboliko hutsak, ez-materialak, hain zuzen itsasontzietan, meategietan, etxebizitzetan edo lantegietan emakume izena jarrita. Nor izan ziren emakume horiek? Euren aukeratuta eman zitzaizkien izena toki eta objektu horietan?

Horrek guztiak hainbat diskurtso eta eredu ekarri ditu historian feminitatearen inguruan, emakumeak zelakoak izan diren eta zelakoan izan beharko luketen. Gaur egunera arte iritsi zaizkigu emakume ereduak koadroetan, horma-irudietan eta eguneroko objektuetan, landa eremuarekin loturiko euskal emakumearen prototipo gisa, Julio Caro Barojak aztertuta, hain zuzen ere euskal matriarkatuaren mitoa biltzen duena. Hain errotuta dago mito hori, indarrean jarraitzen duela ematen du. Hala eta guztiz ere, hainbat antropologok zalantzan jarri izan dute mito hori 1980ko hamarkadatik, Teresa del Vallek esaterako.

Emakumeek eginiko lanak eta sorkuntzak.

Ondarea emakumearen emari edo ondare gisa aztertzeko beste modu bat, itxuraz, kontrakoa da, zeren eta Bizkaiko historiaren eta lurraldearen bilakaeraren **subjektutzat hartzen** baititu emakumeak. Emakume horien zenbait izen gogoratuko ditugu, esaterako: Maria Diaz de Haro, Ona izenekoa, Bizkaiko Andrea hiru aldiz; Juana de Butron Mujica, bandoen gerretan eginkizun garrantzitsuena bete zuena; Dolores Ibarruri, Pasionaria, alderdi komunistako liderra, edozein emakumek bere etorkizuna erabakitzeko askea izan behar duela uste zuena; Juanita Mir, Derioko hilerrian 1937an fusilaturiko kazetaria. Baina gehiago ere bai: Casilda de Iturriza, eraikuntzak egitea bultzatu eta ordaindu zuena; edo Maria Pilar Lopez de Maturana, Berrizko Mesedetako Misioilarien sortzailea eta XX. mendearen hasieran elizan eginkizun garrantzitsua izan zuena, garai hartan ia guztiak gizonak zirenean. Sorkuntzaren hainbat eremutan nabarmendu ziren eta nabarmentzen diren emakumeak, adibidez: Eulalia Abaitua argazkilaria, Dolores Palacios arkitektoa, Ana Laura Alaez artista plastikoa edo Bizenta Antonia Mogel eta Pilar Zubiaurre idazleak. Edo gizezkoenak izan ohi diren esparruetan ausartzen direnak, **bertsolaritzan** edo **herri kiroletan** esaterako. Izan ere, horretaz apenas jabetzen bagara ere, hainbat mendetako tradizioaren oinordeko bikainak dira. Baina araua bete zuten emakumeak ere, gizarte konbentzionalismoak urratu ez zituztenak (egia esateko, gizezko gehienek ere hala jokatu zuten): nekazariak, jornalariak, eskulangileak, arrantzaleak, mailegu-emakumeak, ostalariak, garbitzaileak, inudeak, emaginak, langileak, maistrak, meatzariak...

Emakumearen eta emakumearentzako guneak

Aurten hirugarren modu bat ere badago gaia jorratzeko, **gure kultur ondarearen tokiak** genero-ikuspegitik berrinterpretatzea alegia. Soilik emakumeenak diren guneak hala nola komentuak eta seroretxeak, baina eguneroko lanaren bidez gizarteratze-zentroak bihurtu diren beste batzuk ere: merkatuak, garbitegiak, iturriak... Emakumeak bizi direneko tokiak, etxeak, gune komunekin eta beste batzuk adinaren arabera argi bereizitako beste batzuk, non bizitza pribatua eta bizitza publikoak bereizten diren. Eta etxea esanda, hiriak eta udalerrriak ere bai, hirigintza: gero eta argiago dago kaleek eta plazek generoa dutela, gaur egun badute eta iraganean ere izan dute. Beste behin ere gure armarik onena izan daiteke geure buruari galdetzea gune horiek nork eta zelan bizi izan dituzten.

Azken finean, 2018ko Jardunaldi hauetan Bizkaiko emakumeak dira ardatza: beren borondateaz bete izan dituzten rolak eta lanak, baina nahitaez egin behar izan dituztenak; tradizioa transmititzeko eta memoria kolektiboa bultzatzeko egin duten lana; garaian garaiko gizartean esleitu izan zaizkien jokabide eremuak onartu dituzten ala ez; ezarritakoaren kontrako hausturak iraganean, eta oraindik egunez egun dituzten hausturak; etxe barruan eta kanpoan duten jakintza; Bizkaiko historian subjektu aktibo legez izan duten parte-hartzea, politikan, erlijioan, ekonomian...; kulturaren sorkuntzan izan duten presentzia eta mezenasgoa; egin izan dituzten eta egiten dituzten lanak; mitoetan, errituetan, herri sinesmenetan... duten irudia. Izan ere, komunitateen eta banakoen ekarpenen batura da herrien ondarea, guztion ekarpena. Emakumearen ikuspegitik interpretatzeko unea da.

Amaia Apraiz Sahagún

Ainara Martínez Matía

2018ko Ondarearen Europako Jardunaldien edukien koordinatzaileak

Gai honen aurkezpenaren laburpena da testua: "Ondarea, emakumeen emaria",
aipaturiko autore horiek joan den otsailaren 7an egina.

Bibliografía

- Beauvoir, Simone de:** *El segundo sexo*. Ediciones Cátedra, 2005
- Caro Baroja, Julio:** *Las brujas y su mundo*. Alianza Editorial, 1997
- Chadwick, Withney:** *Mujer, Arte y Sociedad*. Ediciones Destino, 1999.
- Duby, Georges; Perrot, Michelle:** *Historia de las mujeres*. (5vol). Taurus, 2000.
- Lerner, Gerda:** *La creación del patriarcado*. Katakarak, 2017.
- Valle, Teresa del (dir):** *Mujer vasca, imagen y realidad*. Anthropos, 1985.

Materiales de Interés

Igualdad de género, patrimonio y creatividad (Unesco, 2015)
<http://unesdoc.unesco.org/images/0023/002316/231661s.pdf>

Patrimonio en femenino (D.G de BB.AA. y Bienes Culturales, 2011)
<https://sede.educacion.gob.es/publiventa/patrimonio-en-femenino/cultura-sociedad-arte/14187C>

Proyectos Museos en Femenino (2011)
<http://www.museosenfemenino.es>

Historia de las mujeres, mujeres en la historia (EHU/UPV, 2017)
<https://ehutb.ehu.eus/series/592f04dbf82b2bdf488b45a8>

Género del patrimonio cultural: discriminaciones, silencios, igualdad (EHU/UPV, 2016)
<http://www.gipuzkoakultura.net/index.php/es/museos-y-patrimonio/105-actividades/2360-2016-10-17-07-50-10.html>

Mujeres en la Historia

<http://www.mujeresenlahistoria.com>